

INTERNETEN



SEGUR—

TASUNEZ



NABIGATU




EZ



KORAPI—

LATZEKO



AHOLKUAK



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Instituta



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU




Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





01. Groominga

Heldu batek adingabe plantak egiten ditu Interneten, kontrolean oinarritutako harreman bat ezarri eta horren bidez bere helburu sexualak betetzeko.

02. Nortasuna ordezte

Norbaitek zure datu pertsonalak edo irudia erabiltzen ditu identitate faltsu bat sortzeko, helburu duela zu mehatxatzea eta zure ospeari kalte egitea.

03. Irudiak baimenik gabe hedatzea

Norbaitek, zure adostasunik gabe, borondatez bidali zenizkion irudiak, bideoak edo elkarrizketak hedatzen ditu.

04. Sextortsioa

Mehatxu edo xantaia egiten dizute, bestela zure irudi eta/edo bideo intimoak argitaratuko dituztela mehatxatuta. Xantaiari men egiten badiozu, behin bakarrik bada ere, material gehiago eskatzen jarraituko dute.


INDARKERIA DIGITALAREN ADIBIDEAK

05. Zelatatzea edo stalkinga



Etengabe eta behin eta berriz jartzen dira zurekin harremanetan zuk hala nahi izan gabe, edo eskatu ez dituzun argazki edo bideo desatseginak bidaltzen dizkizute.

06. Ciberbullyinga

Jazartzen zaituzte, umiliagarria iruditzen zaizun edukia argitaratzen dute eta/edo sare sozialak edo Internet erabiliz mehatxatzen zaituzte. Berdinen arteko jazarpena da; horretan ez dute helduek parte hartzen.




AGIAN INDARKERIA DIGITALEKO DELITU BAT EGITEN ARI ZARA



DELITU IZAN DAITEZKEEN INDARKERIA DIGITALEKO EKINTZAK

- Beste norbaitekin harremanetan jartzen tematzen naiz behin eta berriz, jada ezetz esana badit ere.
- Bikotekidearen mezu pribatuak begiratu ditut.


- Teknologia erabiltzen dut bikotekidea kontrolatzeko.
- Eskatu ez dizkidaten eduki sexualeko mezuak bidali ditut, genitalen irudiekin.
- Une oro jakin nahi dut non dagoen.
- Beste norbaiten eduki pribatua partekatu dut haren baimenik gabe.
- Beste norbaiten datu pertsonalak erabiltzen ditut eduki pornografikoa sustatzeko.




ARAZOAK EKIDITEKO AHOLKUAK

- Kontuz zer partekatzen duzun. Agian delitu bat egiten ari zara.
- Ez argitaratu datu pertsonalik sare sozialetan, ez eta non zauden ere.

- Ahal dela, ez zaitez ezezagunekin harremanetan jarri.
- Konfiguratu behar bezala zure kontuen segurtasun-eta pribatutasun-mailak. Ez esan zure pasahitzak bikotekideari, ez eta lagunei ere.
- Irudi edo bideo bat bidali aurretik, pentsa ezazu ongi.
- Itxi beti zure saioa eta kamera itzalia eduki.
- Ez sinetsi sarean aurkitzen duzun informazio guztia.





ZER EGIN ARAZORIK BADUT?

Sareko zure segurtasuna kontrolpetik ateratzen bada:

1. Egon lasai, eta oroitu: ez da zure errua.
2. Gorde ebidentziak:
 - Ez ezabatu jaso dituzun mezuak.
 - Hartu probatzat jo daitekeen guztiaren pantaila-irudiak: mezuak, irudiak edo bideoak, zu agertzen zaren web-orriak... eta erasotzailea identifikatzeko aukera ematen duten datuak.
3. Bila ezazu laguntza, zoaz zure familiarengana, irakasleengana, eta oroitu polizia laguntzeko dagoela.

NORA JOTZEN AHAL DUT?

- Foruzaingoko Delitu Informatikoen Taldea
T. 848 42 56 39
pfdelinformaticos@navarra.es
- Foruzaingoa
T. 948 20 29 20
policiaforal@navarra.es
- Nafarroak
Berdintasunerako Institutua
T. 848 42 15 76
violenciainai@navarra.es
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko 4 taldeak:
 - Iruñerria eta Nafarroako iparraldea
T. 848 46 38 60
eaivcomarcaynorte@fundaciongizain.es
 - Tafalla
T. 848 46 30 90
eaivtafalla@fundaciongizain.es
 - Lizarra
T. 948 55 36 20
eaivestella@fundaciongizain.es
 - Tutera
T. 948 40 36 65
eiavtudela@fundaciongizain.es
- Sexu-indarkerien Arreta Osorako Zentroa
T. 848 46 39 99
caivs@fundaciongizain.es

Informazio gehiago hemen:
www.igualdadnavarra.es/eu

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua